

---

R.S.V.A.P.-en Zientzi eraskina

---

ZUZENDARIA: *Luis Bandrés*

IDAZKARIA : *Andoni Sagarna*

HELBIDEA : *Garibay, 23 - 3º – Telf.: 42 99 45 - Donostia-4*

---

Gauza jakina da, gaur egun oraindik eskola-ume gutxi direla Euskal Herrian beren bigarren irakaskuntz mailako ikasketak Lizeo, Ikastola, Institutu, FPko ikastetxe eta abarretan euskaraz egiten dituztenak. Hiru arrazoï nagusi daude, uste dugunez, horretara bultzatzen dutenak.

- a) Ikastolen hazkundera gertaera berri samarra denez, oraindik ume gehienak ez dira O.H.O.etik bigarren irakaskuntz mailara (BUP, FP, COU) pasa.
- b) Ikastetxe askotan (Institutuetan eta FPko hainbat ikastetxetan bereziki) ez dago oraindik bere gaia euskaraz azaltzeko gai den behar adinbat irakasle.
- c) Gai horien azalpenerako beharrezko ikastextu gehienak oraindik euskaraz prestatu edo argitaratu gabe daude.

ELHUYAR taldeak, egoera hau ikusiz, hirugarren puntua zehazkigo aztertuz gogoeta hau egin zuen: euskarazko ikaslibururik ia asignatura guztietan ez egoteak maila haietako ikasketak erdaraz egitera bultzatzen zuen, eta horrek arrisku handi bat zekarren: hainbat urtez O.H.O. mailan ikastola eta abarretan euskarazko irakaskuntza bat sortzen eta indartzen ahalegindu izan ondoren, saiakuntza osoa lehenengo maila horretan estankatzea eta, beraz, luzarora euskarazko irakas-sistema osoa ustelbidera eramatea.

Baina, arrisku hori hain latza izanik ere, bigarren irakaskuntz sistema honetarako orain arte euskarazko ikastextuak zergatik prestatu ez diren nahiko argi dago: dagoen ikasle-kopurua urriegia da oraingoz (eta hala izaten jarraituko du, itxura osoz, hurrengo 5 ÷ 10 urtean ere) zentzu komertzial arruntarekin jokatzu inolako liburu-produkziorik aurrera atera ahal izateko. Edozein tiradak komertziala izateko 5.000 ale ingurukoa izan behar badu, eta dagoen bezeriak urtero 500 ale inguru bakarrik iresten baditu, bistan dago jokabide komertzial hutsez ari den inork ezin dituela hainbat urtetarako liburu-stock horiek bere-

gain hartu. Zentzu komertzial klasikoz antolatuturiko inongo produkzio-elkarte ezin daiteke beraz gaur egun BUP, FP eta COU-rako textugintzaz ardura; eta, hori aski ez dela, ez dago arrazoizko esperantzarik egoera hori hurrengo 5-10 urtean sakonetik alda daitekeenaz.

ELHUYAR taldeak, egoeraren nondik-norakoa neurtu ondoren, oztopo hauek gainditzea erabaki zuen iaz, arazo ekonomikoa kontutan harturik, berari posible zitzaion neurriraino bederen.

Lehendabiziko pausoa zera izan zen: liburu bakoitzeko gaiaren alorrean lan egiten duten irakasle-talde bat bildu. Irakasle hauekin, argitaratuko ziren liburuen programazio bat egin zen: gaien zerrenda erabaki, gai horiek nolako sakontasunez azalduko ziren finkatu, gai horiei zer modutako azalpena eman eta azkenik liburuaren edukin osoa lankideei beren lana dohan egitea eskatu zitzaien. Izan bitez hortaz lerro hauek, lehen-lehenik, lankide horiei egin duten lanagatik ELHUYAR-en eta euskal irakasle guztien eskerrik beroenak adierazteko.

Lan horri esker, ekainerako ELHUYAR-en bulegoan zegoen jadanik ondo-ko liburu hauen euskarazko lehen idazketa: Fisika BUP 2, Fisika BUP 3, Kimika BUP 2, Kimika BUP 3. Geroago, Irailaren erdirako, bazegoen Matematika BUP 3-ren lehendabiziko zatiaren lehen euskarapena.

Momentu honetara iritsitakoan gorri-gorrian agertu zitzaion ELHUYAR-i denen arteko oztopo handiena: liburu horiek argitaratzeko diru-beharra: argi zegoen, hartarako, erakunde baten diru-babesa eskuratu beharra. Aurreko bi urtetan Aurrezki Kutxa batengandik jaso zen laguntza hori (Matematika BUP 1 eta BUP 2 argitaratzeko, hain zuzen). Aurten, hamar liburuki argitaratzeko asmoa zegoela kontuan hartuz, ez da posible izan bide hori jarraitzea, eta beste bide batera jo dugu: Eusko Ikaskuntzara. Elkarte honek, horrelako textugintzak euskal ikas eta irakas-sistemaren etorkizunerako duen garrantziaz jabeturik, interes osoa agertu izan du ekintza hau aurrera bultzatzeko; bertako idazkari den Agustin Zumalabe jaunak lehen egunetik eskaini izan digu hartarako auke-rabidea, eta ezinbestekoa deritzogu hortaz gure aldetiko eskerrona adieraztea.

Diru-arazoa konponbidean jarri ondoren lanaren hurrengo pausoekin jarraitu zuen ELHUYAR-ek. Pauso horietariko lehena, bildutako idaztien zuzenketa izan zen. Lan honen egitekoa azaltzeko, aski dateke euskararen gaur eguneko egoera gogora eraztea; alde batetik terminologia finkatu bat oraindik gutxion artean behar hainbatean finkatu gabe egoteak eta bestetik, eta batez ere, zientzi gaiak euskaraz erdararen pareko erosotasunez tratatzeko daukagun ohitura-faltak ondorio hau dakar: hainbat adierazpide, definitze-modu eta itzul-inguru bat ere finkatu gabe egotea eta, beraz, egile bakoitza bere kabuz hutsune horiek, ahal duen era egokienean, bete beharrean aurkitzea.

Normala denez, hortaz, bakoitzak bere estiloa, hiztegia, e.a. erabiltzen du. Liburuak azkenean batasun logiko bat izan dezan, zuzentzaile bakar batek hartu behar izaten du egindako lana eta esandako gauza horiei buruzko (hots, estiloa, hiztegia e.a.) zuzenketa egin.

Azken pausoa mekanografiatzea izan da, irudiak ipintzea eta dena berriro hizkeraz eta mamiz zuzentzea, textua behar bezain txukun gelditi zedin. Pauso hau zeharo garrantzitsua zen, azkenean liburuak offset sistemaz inprimatzea erabaki bait zen eta, hortaz, makinaz lortzen den txukuntasun-maila offset-ek ezin bait du asko hobetu (hots, offset-a fotokopiaren itxurakoa atera ohi da azken batean, eta ez moldeko letren mailako garbitasunez). Hau ere lan astuna izan da, batez ere arreta handia exijitzen duelako: adibide gisa, esan dezagun Kimika BUP 3 liburua mekanografiatzeak, irudiak jartzeak, konposatzeak eta azken zuzenketak 300 ordu baino gehiago behar izan dituela.

Liburuak Donostiako eta Iruñeko inprimategi batzutan egin dira, etxe horiek prezio merkeagoengatik hautatuak izanik. Liburuak egin ondoren, horien banaketa izan da azken zeregina; egiteko hau enpresa banatzaile baten eskutan utzi da. Bide hau zergatik hautatu den nabaria da: alde batetik, gure ustez zeharo garrantzitsua da euskaraz irakasten diharduten irakasle guztiak liburu hauen berri edukitzea, eta horretarako enpresa banatzaile batek duen sare komertzialaren laguntza behar da; eta bestetik, ELHUYAR-ek ez dauka, urrutitik ere, banaketa-zeregin hauetara dedika daitekeen lantalderik. Aski problema izan ditugu, aurreko bi ikasturteetan, Matematika BUP 1 eta BUP 2 garaiz banatu nahirik, eta inoiz baino gehiagotan aski berandu iristea tokatu zitzaigun halaz ere.

Hona hemen, xehetuz, orain arte argitaratu diren liburuen zerrenda, berei dagozkien datu batzuei aipatuz:

- a) BUP 1 MATEMATIKA. 436 orrialde. 700 ale eginak. Salneurria: 700 Pta.
- b) BUP 2 MATEMATIKA. 304 orrialde. 600 aleko salmenta-tirada. Salneurria: 600 Pta.
- c) BUP 3 MATEMATIKA (1. zatia). 200 orrialde. 450 aleko salmenta-tirada. Salneurria: 400 Pta.
- d) BUP 2 FISIKA. 198 orrialde. 650 aleko salmenta-tirada. Salneurria: 400 Pta.
- e) BUP 3 KIMIKA. 251 orrialde. 450 aleko salmenta-tirada. Salneurria: 500 Pta.
- f) IRAKASLE-ESKOLAKO 1. KURTSORAKO MATEMATIKA (1. zatia). 220 orrialde, 300 ale. Salneurria: 400 Pta.

Bi ohar, azkenik, zerrenda honi buruz:

- 1) Irakasle-eskolako Matematika liburua Jesus Mari Goñiren lan orijinala da, bai bere edukinagatik eta bai bere azalpide pedagogikoagatik ere. Gure eritziz lan hau oso interesgarria da irakasleentzat, matematikaren irakaskuntzaren metodo berrien albistea izan dezaten.
- 2) BUP 1 eta BUP 2 Matematika jadanik euskaratuak eta argitaratuak zeuden baina kurso bakoitzerako gaia hiru liburutan zatitua. Aurten, eta Eusko Ikaskuntza dela medio, berriro argitaratu dira, partez zuzen-

du, berriz mekanografiatu eta hobetu ondoren, eta ikasturte bakoitzerako gaiak liburu bakar banatan bilduz.

Kritika batzu ere jaso izan ditugu liburugintza honetan eraman dugun jokabideagatik; eraikikorak direlakoan, gogoz onartzen ditugu. Kritika hauek liburuei jarritako prezioei dagozkie nagusiki: garestiegiak omen dira. ELHUYA-Rek bi hitz adierazi nahi luke honi buruz: lehendabizi, liburu horiei prezio "politiko" bat ezarri nahi izan zaie; hots, erdal liburuak duten prezioaren parekoa gutxi gora-behera; ez dago esan beharrik ere salmentatik eskuratzen den dirua ez dela kostuak ordaintzera iristen: Eusko Ikaskuntza babeslari izan ez bagenu, liburu horiek ez zuten kaleratzerik izango. Baina, nahiz eta aurten Eusko Ikaskuntzaren laguntza jaso, ez dakigu datorren urtean zer gertatuko den; oraindik liburu asko argitaratzeko premia dago izan ere, eta horregatik salmentatik bihurtuko den dirua Eusko Ikaskuntzari itzuli beharko zaio, honek "koltxoi" bat izan dezan datorren urtean argitaratzea pentsatzen den liburuak babesten jarraitzeko. Bigarrenik, gure ustez, Euskal herrian EUSKARA aurrera atera nahi badugu guztion laguntzaz lortu beharko da gerora ere horrelako helburua; oraingoz, kultura eskuratu nahiak gogoa eta dirua eskatzen du edozein erdal kulturatan, eta EUSKAL KULTURARI benetakoa KULTURA baderitzogu ezin harrituko gara dirua kostatzeaz.

Ikasturte honetako bigarren koatrimestrerako beste liburu hauek argitaratzeko asmoa dugu:

- a) BUP 3 MATEMATIKA (2. zatia).
- b) IRAKASLE-ESKOLETARAKO 1. KURTSORAKO MATEMATIKA (2. zatia).
- c) BUP 3 FISIKA.
- d) BUP 2 KIMIKA.

Langintza guzti hau euskararen normalizaziorako eta erabilera orekatu baterako urrats berri bat dela deritzogu. Beste lan-taldeen akuilugarri izan bedi, beraien ekintzan lanean gogor jarraitzeko.

Guztionez lana premiazkoa izango bait da aurrerantzean ere, herri honen euskalduntze-asmoak dekretu hutsetan ihartzea nahi ez badugu, eguneroko lanpraktikaren beroaz sustatu eta bultzatzeko.